

GOBERNU BATZARRA

2009. 06. 29

Alkatea:

Jokin Bildarratz Sorron

Zinegotziak:

Olatz Peon Ormazabal

Jokin Azkue Arrastoa

Andoni Iturzeta Arbillaga

Onintza Lasa Arteaga

Yurre Peñagarikano Zubeldia

Beh. Beh Idazkaria:

Karmele Contreras Goikoetxea.

Tolosako Udaletxean, bi mila bederatziko ekainaren hogeita bederatzian, Gobernu batzarra bildu da, ohizko bilera egiteko, goizeko 08:00etan hasita. Mahai-burua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeko.

1.-Aurreko akta onartzea.

2.-Ibilgailuen zerga. A.M.A.-ren eskaera/ Impuesto de vehículos. Solicitud de A.M.A.

3.- Kulturako diru laguntzen banaketa.

4.- 14.zenbakia duen faktura-zerrenda.

1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2009ko ekainaren 22an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

2.- Ibilgailuen zerga. A.M.A.-ren eskaera/ Impuesto de vehículos. Solicitud de A.M.A.

Aurtengo ekainaren 17an, A.M.A-k eskatu du Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren salbuespena SS-9335 AS ibilgailuan minusbaliotasunagatik.

Aintzat hartuta Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko zergaren ekainaren 5eko 14/1989 Foru Arauaren 2. artikulua, eta zergaren kuoten Ordenantza fiskal arautzailea, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

El 17 de junio de 2009, A.M.A. ha solicitado la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo SS-9335 AS, por motivo de minusvalía.

Teniendo en cuenta lo establecido por el art. 2 de la Norma Foral 14/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, y la Ordenanza Fiscal Reguladora de las cuotas del Impuesto, la Junta de Gobierno, por unanimidad y en uso de las facultades delegadas al efecto por la alcaldía,

ERABAKI DU

LEHENA.-A.M.A.-ren izenean matriculatutako SS-9335-AS ibilgailuari Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergaren salbuespena ematea, 2010etik aurrera.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Kontuhartzaitzari eta interesatuari.

ACUERDA

PRIMERO.- Conceder la exención del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica al vehículo SS-9335-AS, matriculado a nombre de A.M.A. con efectos a partir del año 2010.

SEGUNDO.- Dar cuenta de la adopción del presente acuerdo a Intervención y al interesado.

3.- **Kulturako diru laguntzen banaketa.**

Gai hau mahai gainean geldutu da hurrengo bilera arte.

4.- **14. zenbakia duten faktura-zerrendak.**

Kontuhartzaitzak 14. faktura-zerrendak aurkeztu du, 99.398,33 €-koa.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

ERABAKI DU

LEHENA.- Aipatutako 14. faktura-zerrendak onartzea.

BIGARREN.- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.

ALKATEA

Beh. Beh. IDAZKARIA